

IZARRETAKO



PIRATAK



Hondartuta!

JIM LAO

desclée

IZARRETAKO  PIRATAK

Hondartuta!

Itzelezko distira baten ostean, zerbait ezkutatu da asteroide erraldoiaren atzean. Samek hurbilagotik begiztatu du asteroidea.

—Ez, ezin du izan! —esan du—. Baina, bada!—. Grabitatearen Mendekua da! Zulo Beltz Bizartsu itzuli da!





IZARRETAKO  PIRATAK

Hondartuta!

JIM LAOO



Ilustrazioak
Benji Davies

Itzulpena
Miren Ibarluzea

desclée



© Hothouse Fiction 2013
© Ilustrazioak: Benji Davies 2013



Jatorrizko izenburua:
Stranded!
Space Pirates 2

Itzulpena © 2018 Miren Ibarluzea



© 2018, DESCLÉE DE BROUWER S.A.

Henao, 6 - Bilbao
Tlf.: 94 423 30 45
www.desclee.eu
www.edesclee.com



Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta hurrengoak).

CEDRO erakundeak babesten ditu aipatu eskubide horiek.

ISBN: 978-84-330-2984-3

Legezko gordailua: BI-718-2018

Inprimatzailea: Grafo S.A. - Basauri



Nor da nor
APOLO ALAI
ontzian



KOMETA KAPITAINA

SAM
IZARBERRI



KAKO
ETA
TAKO



PATXO

Nor da nor
GRABITATEAREN MENDEKUA
ontzian



ZAKUTS


MARRO



ZULO BELTZ
BIZARTSU



1. kapitulua
ARRASTOAN!





IZARRETAKO PIRATAK

— Aurrera, abiada bizian! —oihukatu du Samek.

Apolo Alaiko bela nagusiak izar-haizez bete dira, eta dotore eutsi diote Aurora eguzki-sistemako espazio hutsean zehar. Apolo Alai ez da ohiko ontzia, pirata-ontzia da! Ontzi-hondakinak erabilita atondutako puzzle antzeko bat da. Ontziko eskifaia era askotako alien koadrila batek osatzen du; seguruenik, galaxietan inoiz izan diren izarretako pirata traketsenak dira denak. Tira, Sam Izarberri kabinako morroia izan ezik.

—Hori da! Horra hor Max Argi! —esan du Samek, gertuko eguzki-izar bat seinalatuz.

—Itxi ahoa, ontzi-kide! Gutako batzuk ondo merezitako kuluxka egin nahian ari gara eta! —erantzun dio Kometa kapitainak.

Kometa da Apolo Alai ontziko kapitaina. Garaia eta argala da. Hiru begi ditu (partxearekin estaltzen ditu horietako bi), eta bibote luze tinkoa. Buztan luzeko jaka darama, eta hiru puntako kapela buruan. Pirata perfektuaren itxura du; tamalez, janzkera da Kometak daukan pirata-ezaugarririk esanguratsuena. Une honetan bertan, aulki batean etzanda dago, hiru lentedun

Hondartuta!

eguzkitako betaurrekoak jantzita, giron apartasuz betetako edalontzia eskutan.

Grona da piraten gustuko edaria: limoi-ur bisduna da, kantatzeko gogoia pizten duena eta espazioak eragindako eskorbutoa ekiditen duena.

—Baina, kapitain! —tematu da Sam—. Max Argi gurasoen mapan dago!

Samen gurasoen espazio-ontziak istripu bat izan zuen, eta X Planeta ospetsuan dago hondartuta. Gurasoek Sami mapa bat bidaltzea lortu zuten, espazio-jantzi baten oihal zati bat erabilita.

Sam eta gurasoak harri biluzizko planeta batean bizi dira, ezerezaren erdian. Bertan ez dago ezertxo ere, salbu eta gurasoen laborategia eta izarretako piratez betetako portua. Piratei bola-jokoan aritzea baino gehiago gustatzen zaizkie altxorrak, eta den-denek entzun izan dute noizbait X Planetari buruzko zurrumurruren bat: urre solidozko planeta omen da. Samek Kometa kapitainari mapa erakutsi bezain laster, kapitainak ontziratzeko gonbita egin zion, eta berehala izendatu zuen Apolo Alai ontziko kabinako morroi.

—Max Argi? Seguru zaude? —galdetu du Kometak, bat-bateko interesa agertuz.

Jakaren barrualdean hasi da zerbaiten bila. Mapa marrazturik daukan zilar koloreko espaziojantziaren oihal zatia atera du. Begiak kliskatu ditu eta, inor begira ez duela ziurtatu ondoren, begietako partxea kendu du. Egoera bikainean ditu azpiko bi begiak. Adi begiratu dio berriz mapari.

—Estutu ditzadan tiranteak... arrazoi du eta... —murmurikatu du Kometak, bere baitarako. Partxeak ezarri ditu berriz, eta eztarria argitu du—. Ondo egina, Sam. Zu noiz konturatuko zain nengoen... Nik, noski, aspaldidanik nekien.

Kubiertaren bestaldetik, Patxok, txipiroi itxurako alien sukaldariak, begiak kiribilkatu ditu eta irri egin die Kometaren ahoberokeriei. Ispilu kurbatu batean barbakoa egiten ari da Patxo: itxura higuingarria duten arrain-puskak eguzki-argitan erretzen ditu.

—Ados! Kako eta Tako, har dezagun bidea eguzki-izar horretara —esan dio Kometak bi buruko eskifaia-kideari.

